


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE ROLDAN BIDABURU. EUSKAL MUSEOA. BILBO

OTSAGABIKO SUKALDE BATEAN LANEAN, XX. MENDE HASIERAN

Jose Roldan Bidaburu 1860an Arrasaten jaiotako argazkilaria izan zen, baina jarduera profesionala Iruñean garatu zuen gazte-gaztetatik. 1888an "Fotografia Roldan y Mena" sozietatea sortu zuen Felix Menarekin batera, Iruñeko Gazteluko plazan. 1899an sozietatea desegin zuten, eta bakoitzak bere kasa jarraitu zuen. Roldanen kasan, oso ezagunak dira Nafarroako Erronkari eta Zaraitzu ibarretan egindako argazki sailak. Batez ere, jantzi tipikoak dituzten pertsonaienak, eszena familiarrenak eta lanekoak. Artikulua ilustratzen duen argazkia Otsagabian egin da, XX. mendearen hasieran, baserri bateko sukaldean, eszenaratze eder batekin. Atzealdean, eskuinean, xixilu batean dagoen gizon bat ageri da, bere mahai tolesgarrian jarrita. Erdian, argazkilariak margotutako su batekin, lapikoa dago trebera batekin, lapikoei eta zartaginei txingarren gainean eusteko balio duen hiru hankako tripodearekin. Lehen planoan agertzen diren bi emakumeak artilea egiten ari dira. Ezkerrekoa artilea kardatzen ari da. Eskuineko emakumea tira finetan jartzen ari da, harilkoak egiteko eta ehuntzeko prestatzen.